

12 ARABA

Sabando ibaiaren ur-jauzia



Ingurumen-garrantzia

Sabando ibaia Ega ibaiaren adarra da. Aguaque ur-jauziaren antzera, ibai ibilbide hau bi eremu garrantzikoaren artean dago. Batetik, Hornillo-Orbiso paisaia: Izki mendien eta Lokiz mendilerroaren artekoa, bestetik,

hegoaldeko paraje zoragarria: Iturrieta eta Arboro mendiak. Inondik ere edertasun handiko eremu honetan baso sarriak aurkitzen ditugu: ameztiak, erkametzak, zurbeltzak eta pagadia. Ibar basoan itzala ematen duten beste

hauek ditugu: haltzak, lizarrak eta sahatsak, hainbat animalari, anfibio, arrain, hegaztia eta ugaztunei, babesa ematen dietenak.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 5,4 km



Ordu 1 eta 45 min



Udalerria:

Kanpezu

Hurbileko herria:

Antoñana



Ibaia:

Sabando



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo. Errepide asfaltatua



725 m



181 m



600 m



181 m



**SABANDO
IBAIAREN
UR-JAUZIA**

Sabando ibaiaren ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu

Sabando ibaiaren ur-jauzia, Oteoko errota izenaz ere ezaguna, Arabako Lurralde Historikoaren hego-ekialdeko muturrean dago, Arabako Mendialdea eskualdean, Antoñanatik gertu, Kanpezu udalerrian.

Ibai ibilaldia Antoñana herritik hasiko dugu, hiribarnetik hasita NW norabidean.

Ondoren, Goiko Larrainak kalea hartu eta eliza atzean utzirik, Sabandorako eta Oteoko errotarirako bidea hartuko dugu.

Laurehun bat metro egin ondoren, errepidearen eskuinaldean egingo dugu topo Aguaque ur-jauzira doan ibilbidearen seinalearekin.

Guk errepidetik jarraitu behar dugu eta bi koma bi kilometro pasatuta Oteoko errotara helduko gara.

Eskuin aldean, Oteoko herriraino heltzen den lurreko pista bat hasten da. Bidea, Aguaquetik Oteoko errotaraino, oinez, bizikletaz edo autoz egin daiteke. Errotaren ondoan aparkaleku moduko bat dago.

Zubia gurutzatuta errotaraino helduko gara eta handik gutxira Sabando ibaiaren urak ikusiko ditugu ur-jauzian amiltzen.

Itzuliko bidea toki beretik egin dezakegu.

Ibilbidea edozein urtarotan egin daiteke, nolanahi ere, euri sasoian eta elurra urtze ostean dugu abagunerik onena Sabando ibaiaren emari gorenak eskainitako ur-jauzi zoragarria gozatzeko.

Deskargatu
ibilbidea:



KML




GPX



Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc



Sabando ibaiaren ur-jauzia



Sabando ibaiaren ur-jauzia

